



## Muxikako dorrea (Muxica)

XIV. mendearen hasieran Hurtado Gartzia Abendaño Bizkaiko ganboatar bandoko buruak zeukana bere hiru semeen artean banatu zuen: handienari Arabako Aramaioko bailara eta Dimako Urkizuko orubea eman zizkion; bigarrenari, Arteaga; eta hirugarrenari, Joan Galindezi, Muxika. Azken horrek *fiso el primero cadalso e [el] primer palacio e aseñas e solar, e fue el primero que poble allí, e por eso tomo el nombre de Mugica*.

Garai batean leinu gaztearen Abendaño-Urkizuko eta Arteagako ahaideekiko harremanak onak izan ziren. Baina egoera hori XV. mendea hasitakoan aldatu zen: Maria Alonso Muxikakoa, orubearen oinordekoa -Joan Galindezen biloba-, Butroeko Gonzalo Gomez jaurreko oinaztar leinu nagusiko ahaide nagusiarekin ezkondu zen. Muxika-butroetarren eta lehengusu abendañotarren arteko liskarrak laster etorri ziren. Beraien goren uneak honakook izan ziren: Otxandio erretzea (1415), Mungiako borroka (1437), Aramaio berenganatzeko borrokak (1437-1450), Arrasate erretzea (1446) eta Elorrioko bataila (1468). Guztiarekin ere, 1471n Joan Alonso Muxika-Butroekoa eta Pedro Abendaño adiskidetu egin ziren eta Pedro Fernandez Velasco Haroko kondea garaitu zuten Mungiako batailan.

Muxika-Butroeko orubea Bizkaikorik garrantzitsuenetakoa zen, aberastasunean eta boterean Abendañoak bakarrik gaititua. Uribeko merindadearen zati handiko benetako jaunak ziren, Plentzia, Larrabetzu eta Gernika hiribilduak barnean sartuta. Gainera, baserritarren zergak eta elizen hamarrenak kobratzen zituzten. Eta erroten, burdinolen, baserrien, laborantzako lurren, mendien, ganaduaren eta abarren jabeak ziren. Pribilegio-egoera hori haren abizenetako dorre bietan islatu ziren. Gotorleku biok oso eraldaturik daude baina Bizkaiko dorrerik gehienek baino askoz indar eta bikaintasun-sentsazio handiagoa ekartzen jarraitzen dute.

Perspektiba zabala menperatzen den muinoaren gainean finkaturik dagoen Muxikako egungo dorrea ez da Joan Galindezek eraiki zuena. Hura urkamendia zen, zurezko eraikuntza, aztarnarik geratzen ez zaiona.

Gero, une ezezagunean, harrizko lana jarri zen beraren orde. Baliteke horri etxearen perimetroaren zati handia egokitzea: harresi izugarria (2,60 m lodi, 5 m gora), oin ia karratua (19 x 20 m) zehazten duena. Harresi hori harrizko bloke handiz eraikita dago eta nonbait fase bitan eraiki zatekeen, arku zorrotz eta zabala den sarrerako tunelean ikusten den bezala.

Ez dakigu harresi handi hori ertaroko dorrearen inguruko harresiaren zati ala dorrearen kanpoaldeko hesia zen. Nolanahi ere, XIV. Mendearen hasieran haren barrualdea -200 m<sup>2</sup>-tik gorakoa- hutsik geratu zatekeen, eta haren erdia gustu errenazentistako baina ohitura gotikodun jauregiak bete zuten.

Lan berria bolumen handi eta etzana da, aurretiko harresiaren gainean finkatua -harresi hori jauregia eraikitzearen kariaz berriz egin zen-.

Bertako lehenengo solairuak oso eraldaturik daude. Beheak, jatorriz ukulua edo sotoa izandakoak, egun etxera sartzeko balio du, halaber. Ez du jatorrizko baorik gordetzen.

Gainetik, solairuarte dago, zerbitzu-lekuetarako gunea nonbait, hala nola, sukaldeetarako eta logeletarako-gaur egun funtzio horiek betetzen ditu. Badugu bertan dorreko lehengo leihoetako bat ikustea: geminatua, arku eskartzanokoa, baina mainela galdu duena.


Baina Muxikako dorreko gune nagusia bigarren solairua da. Bertara barrualdeko eskaileratik sartzea dago, kanpotik bere sarrera zuen baina: erdi-puntuko arku. Bertara Lko oineko patin edo harrizko eskaileratik heltzen zen. Berau fatxada nagusiarekiko elkarzutik igotzen zen. Bizkaiko elementu arkitektoniko paregabe hori garaikideak harrizkoa zen.

Solairuaren barruan areto zabala -120 m<sup>2</sup>-tik gorakoa- ikus dezakegu, barrualdera begira eserlekuak dituzten bost leiho eskartzano zabalaren bitartez argizatua. Haiek era irregularrean banatuta zeuden, beraietariko batzuk apaindurik zeudela: atzeko aldekoetako baten erroskan harrian tailaturiko zirkulu zentrokideak ikus daitezke.

Benetako dorreetan bezala, areto hori leinuaren gizarte ordezkapenerako gunea zen. Bertan ekitaldi ospetsuak izaten ziren, hala nola, tregoa sinatzekoa edo senar-emazteen kontratua edo testamentua idaztekoa.

Kanpoaldean, solairu horren goialdean zehar, bozel-laurdeneko harburutxoak daude, teilatuaren hegala finkatzen zuten jabaloiei eustekoak. Baina XIX. mendean etxearen barruko egitura eta, berarekin batera, gainaldea berritu ziren: teilatu berriak hormen gainetik hegala egiten du ia-ia. Jabaloiak, alferrikako bilakatu baitziren, ezabatu egin ziren, eta egun mentsulak nahiko galduta daude hormataletan.

**Testua:** Juan Manuel González Cembellín.



### Muxikako dorrea

Muxika. (San Roman auzoa).

#### Nola heldu:

Amorebieta-Etxano-Gernika errepidean dorreranzko saihezbidea hartu behar dugu.

#### Bisituen ordutegia:

Jabetza pribatua da.

#### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Muxika)

- San Roman basiliza
- Ugarteko San Bixente eliza
- San Pedro basiliza
- Etxezarreta jauregia
- Undajauregi baserria
- Ormaza baserria